



HERRI BIZIA
Errenteriako
udal komunikabidea

Etxeetako hondakin toxikoen eta arriskutsuen gaikako bilketa zabalduko du Udalak

Ingurumena | Jasangarritasuna [2019-05-31](#) | 0

Ingurumen eta osasun publikoaren hobekuntzarako eta legedi berria betetzeko asmoarekin, Errenteriako Udalak 2017an ezarri zuen hondakinen gaikako bilketarako udal sistema berria, Hondakinetako Ordenantza berriaren laguntzaz. 2018an hondakinen gaikako bilketako tasa %60ra igotzea lortu zen herritarren inplikazioaren bidez.

Orain, **errefusaren bolumena eta toxizitatea gutxitzeko helburuz, ekainaren 3tik aurrera etxean sortutako hondakin arriskutsu eta toxikoak biltzeko zerbitzua ezarriko da auzo guztietan**. Sistemaren (edo garbigune mugikorra) oinarria bi erremolke izango dira auzo bakoitzeko puntu estrategikoetan, **goizeko 8:00etatik gaueko 22:00ak arte** jarriko delarik astean behin. Egun osoan zehar onartutako hondakinak bertan uzteko aukera egongo da, hurrengo egutegiaren bidez:



ASTELEHENA Lunes	ASTEARTEA Martes	ASTEAZKENA Miércoles	OSTEGUNA Jueves	OSTIRALA Viernes
Galtzaraborda Kiroldegia	Kaputxinoak Sorgintxulo	Beraun Pablo Sorozabal	Gaztaino	Agustinak Markola
Erdialdea Gamon zumardia	Pontika	Alaberga-Kaputxinoak Fuentepelayo plaza	Iztieta Anbulategia	Fanderia Errota

ONARTUTAKO HONDAKIN TOXIKO ETA ARRISKUTSUAK:

1. Margoak, bernizeak, disolbagarriak, kolak,...
2. Garbiketa produktu kimikoak, erabilitako sukaldeko olioak,...
3. Aerosol toxikoak: intsektizidak, herbizidak, lakak,... (ontzi hutsak ere bai)
4. Ibilgailuen olioak, bateriak, filtroak, antikongelanteak,...
5. RAEE: elektragailu txikiak, osagai informatikoa (pantailak, teklatuak,...), telefono mugikorrek, inprimagailuen

kartutxoak eta tonerrak, jolas elektronikoak, CDak, DVDak, pilak eta bateriak, bonbillak (soilik LEDak eta kontsumo baxukoak) eta fluoreszenteak.

Udalak herritarrak animatzen ditu gaikako bilketaren funtzionamenduan, etxeetan eta komertzioetan sortzen ditugun hondakinen birziklapena hobetuz.

< | Haur Marrazketa Lehiaketa antolatu du Juneren Hegoak elkarteak

Madalenetako laguntzaileak hautatzeko deialdia astelehenean irekiko dute >

No comments yet.

Utzi erantzuna

Name (required)

Email (will not be published) (required)

Website

SUBMIT COMMENT

Search... 

Banbalinak: Urtarrila – Martxoa

00:00

01:04

OG.

23

**Gladys gogoan**

urtarrila 23 / 17:00 - 20:00

Xenpelar Etxea

OG.

23

**Elikadura kalitatearen tailerra**

urtarrila 23 / 18:00 - 18:00

Xenpelar Etxea

OG.

23

**Bakean dagoena bakean utzi**

urtarrila 23 / 18:30 - 18:30

Emakumeen Etxea

LR.

25

**Icône. Modaren historiaren ikonoak / Iconos de la historia de la moda**

urtarrila 25 / 11:00 - 14:00

Jantziaren Zentroa- Kapitain Etxea



Udaletxeko telefono
zenbaki eta luzapen
berriak



Udal Komunikazioa

Errenteriako Udala

Kultura kreaktibo

ADN Kreaktibo

Gardentasuna

Errenteria Film

Herribizia

Ondarea - Herria ezagutzen

Ingurumena

Gazte informazio bulegoa

Gazteria

Errenteria Kirolak

Udal Euskaltegia

Errenteria Musikal

Herribiziako Orrialdeak

Berriak

Agenda

Auzoak

Madalenak

Inauteriak 2017

Memoria Partekatu Baterantz

Legegintzaldi Plana

cc-by-sa 3.0